



Bi proiektu berritzaile atera ditu energia esparruan

Joan den ekainaren 15ean, **Repsoleko** Kontseilari Ordezkarriak, Josu Jon Imazek, puntako proiektu industrial garrantzitsu bi aurkeztu zituen. Proiektuak desikazteko dira eta konpainiak Espainian martxan jarriko ditu.

Instalazioek, lehen aukera legez Bilboko portuan eta bere inguruan kokatuko direnek, 80 milioi euro inguruko hasierako inbertsioa beharko dute.

Lehen proiektua, munduko plantarik handienetako bat eraikitzea da, CO2tik eta energia berriztagarriarekin sortutako hidrogeno berdetik hasita, erregaia isuri netorik gabe ekoizteko.

Petronorrez gain (Repsol Taldea), proiektuan Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) ere parte hartzen du. European erreferentziako instalazioa izango da bere teknologia aurreratuegatik eta lehengai legez, Petronorretik ateratako CO2 erabiltzeagatik.

Bigarren proiektua, gas sortzeko planta bat eraikitzea da hiri-hondakinetatik hasita eta horrek, Petronorren ekoizpen prozesuan erabiltzen diren ohiko erregaien kontsumoaren zati bat ordezkatu ahal izatea ekarriko du. Ekimen biek, berritzaileak, jasangarriak eta balio gehiago sortuko dutenek, birfindetza etorkizunean izango dena aurreratzen digute eta bultzada handia dira teknologia eta industria garapenerako, ezinbestekoak bait dira gaur egungo susperraldi ekonomikoaren tesuinguruan.



Josu Jon Imazentzat, "industriaren aldeko apustua egitea, susperraldi ekonomiko arina eta egonkorraren aldeko apustua egitea da". "Españiak, desikazteko estrategia, bere teknologia eta industria ahalmenetan oinarritu behar du. Hidrogeno berdea ekoiztea eta CO2 hartze eta erabiltzearekin konbinatzea isuri neto zeroko erregaia ekoizteko, Repsolek desikazteko daukan estrategia industrialaren zati da. Proiektu honekin, espainiar industria aktore garrantzitsua bilakatu da European isuriak gutxitzeko", adierazi du.

Repsol | Petronor eta Bilboko portuari buruz. **Petronor** 1968an sortu zen Bilboko portuari oso lotuta bere itsas- terminalagatik, hortik, urtero, 15 bat milioi tona produktu pasatzen baitira ■



REPSOL | PETRONOR

LNGa itsasontziei hornitzeko estazio berria

2019ko otsailean, **Repsolek** akordio bat sinatu zuen Brittany Ferries ontzi-entresarekin, bere itsasontziei gas natural likuatua (GNL) hornitzeko Bilboko eta Santanderreko portuetan, ontzi-entresa frantziar honek Espainian, portu horietatik operatzen duelako.

"Repsol LNG Holding, Sociedad Anónima" deitzenak **Bilboko Portuko Agintaritzari** emakida bat eskatu dio, Zabalakuntzaren A-6 Kaian (Lehengo A-3) 7.443 metro karratu inguruko lur-azalera eta 429 metro karratuko lurpeko azalera okupatzeko bertan, GNL erregaia itsasontziei hornitzeko estazioa bat eraikitzeko eta ustiatzeko.

Horniketara, erdi-mailako biltegitratze sistema baten bidez egingo da. Zisterna-kamioi batek, 1.000 m³ko tanga izango duenak, erregaia aldira emango dio.

Gas natural likuatua, Brittany Ferries ontzi-entresako Salamanca eta Santoña itsasontziek erabiliko dute, Bilbao eta Portsmouth (Erresuma Batua) arteko ohiko ibilbideetan.

Repsolek horrela, energia anitzeko hornitzailea izateko apustua mantentzen du. Bere helburua, 2050erako, berrikuntzaren eskutik isuri zero lortzea da, eta bere bezeroei, behar duten malgutasun operatibo handiena eskaintzea ■

